

NAFARROAKO PARLAMENTUKO MAHAIARI

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikulua eta hurrengo babesean, honako **MOZIO** hau aurkeztu dute, **OSOKO BILKURAN** eztabaidatu eta bozkatzeko:

ZIOEN AZALPENA

2015eko irailaren 27an Nazio Batuetako Batzar Orokorrak Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuen, pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko eta pertsona guztiei oparotasuna bermatzeko xedez. Agenda horrek 17 helburu ditu, eta 169 xede, baita aitorten politiko bat ere.

Nazio Batuetako Estatu Kideek onartutako ebazpenean aitortzen da gaur egungo munduak duen erronkarik handiena pobrezia —bere forma eta tamaina guztietan— desagerraraztea dela eta, bertan esaten denez, ez da garapen iraunkorrik izanen hori lortzen ez baldin bada.

NBEk onartutako agenda hori, hain zuzen ere, 2016-2030 aldirako nazioarteko garapen-agenda nagusia da, eta erreleboa hartu die 2000. urteaz geroztik indarrean ziren Milurteko 18 Garapen Helburuei. Gainera, unibertsala da eta, horregatik, herrialde guztietan aplikatu daiteke, "garatuak" deiturikoak barne.

Garapen Iraunkorreko 17 Helburuek pobrezia desagerrarazteko mundu-mailako tresna izan nahi dute, baita desberdintasunak eta urrakortasunak murrizteko ere, giza garapen iraunkorraren paradigmapean. Horregatik, iraunkortasunaren aldagaia txertatu du giza garapenean. Arlo ekonomikoa, soziala eta ingurumena biltzen ditu Agendak, eta hiruetan ere eragin nahi du, ikuspegi integral batekin jokatzuz. Estrategia berri honek mundu-mailako garapen-programak gidatuko beharko lituzke datozen 15 urteetan, eta bat egin duten estatuak beharrezkoak diren baliabideak jarriko beharko lituzkete estrategia gauzatzeko, lehentasuna bereziki sektorerik pobreenen eta zaugarrienen beharrei emanez.

Estatuak onartutako ebazpenak dioenez, honakoak dira, besteak beste, helburuak: "2030 bitarteko epean mundu osoan pobrezia eta gosea desagerraraztea; herrialdeen arteko eta herrialdeetako barruko desberdintasunei aurre egitea; gizarte baketsuak, bidezkoak eta inklusiboak eraikitzea; giza eskubideak babestea, generoen arteko berdintasuna eta emakumeen nahiz nesken ahalduntzea sustatzea; eta planeta nahiz beraren baliabide naturalak modu iraunkor batean babestea".

Agendak biltzen dituen helburuak indarrean daude ofizialki 2016ko urtarrilaren 1aren geroztik. Honakoak dira 17 helburu edo arloak:

1.- Pobrezia desagertzea; 2.- Goserik ez izatea; 3.- Osasuna eta ongizatea; 4.- Kalitate oneko hezkuntza; 5.- Genero berdintasuna; 6.- Edateko ura eta saneamendua; 7.- Energia eskuragarri eta ez-kutsatzailea; 8.- Lan duina eta hazkunde ekonomikoa; 9.- Industria berrikuntza eta azpiegitura; 10.- Desberdintasunak murriztea; 11.- Hiri eta komunitate iraunkorrak; 12.- Ekoizpen eta kontsumo arduratsua; 13.- Klima babesteko ekintza; 14.- Uretako bizitza; 15.- Lehorreko bizitza; 16.- Bakea, justizia eta instituzio sendoak; 17.- Itunak, helburuak lortzeko.

Agendak, horrenbestez, helburu garrantzitsuak ezarri ditu, eta horiek betez gero munduak berak beste tankera bat izanen luke. Bistakoa da, noski, erronka ez dela batere erraza, eta gaur egun indarrean diren eredu, ikuspegi, politika eta interes kontrajarriek biziki zailduko dutela helburu horiek denak eskuratzea. Dokumentuaren osaketan bertan interes eta ikuspegi horien arteko tentsioa agertu da, eta dokumentuaren erredakzioan bertan ere horren isla suma daiteke.

2030 Agendaren irakurketa kritiko bat egin daiteke eta, are gehiago, egin behar da. Kontraesanak eta zalantzak ere baditu dokumentuak, eta horrek ere hainbat galdera uzten dizkigu, irekita, erantzun bat beharko dutenak. Dokumentua osatu zen garaian, erakunde publikoek eta gizarte zibilak gainera, enpresa-munduko sektore pribatuak ere esku hartu zuen, korporazio eta konpainia multinazionalak ere indar egin zuten, eta horrek ere eragin du azkeneko emaitzan. Bestalde, hainbat gizarte eragilek aipatu duenez, iraunkortasunaren eta hazkundearen arteko erlazio gatazkatsuari ez zaio irtenbide koherente eta argi bat eman; "erantzukizun partekatua baino ezberdindua" printzipioa ez dago behar bezala jasoa; gizarte zibilak eta gobernu batzuek egindako zenbait proposamen kanpoan gelditu ziren, gobernantzari buruzkoak edo gardentasun fiskalari buruzkoak esate baterako...

Baina 2030 Agendak izan litzakeen kontraesanen, erantzun zehatzik gabeko galderen eta hutsune guztien gainera, eta kontuan izanda ez duela dokumentu itxi eta bukatua izan behar, tresna dinamiko bat baizik, merezi du Agendak planteatzen dituen erronkei aurre egiteko ahalegina egitea, eta ahalegin hori sistematikoa, ordenatua eta planifikatua izatea.

Hori bera da, hain zuzen ere, 2016ko ekainaren 7an Garapen Jasangarriko Helburuei buruz Nafarroako Parlamentuan egindako Parlamentu Irekian gizarte eragileek egin zuten proposamen zehatza. Jardunaldi horretan 2030ko Agendaren inguruko gogoeta eta azterketa egin zen, eta gizarte eragileek, Gizarte Entitateen Plataformaren bitartez, plangintza egonkor bat eskatu zioten, hitzez hitz, Nafarroako Erakunde Publikoei. Plangintzarekin batera, behar beste baliabideez hornitutako estrategiak eta politikak eskatu zituzten, baita heziketa-, informazio- nahiz sentsibilizazio-neurriak ere, eta politika horietan eta horien segimenduan gizarte zibilaren egitekoa aitortzea.

Parlamentu Irekian Nafarroako Erakunde Publikoei egin zitzaizen eskaera zehatza kontuan izanda, egokia da erakundeek eskaera horri eustea eta dagozkien urrats zehatzak egitea. Ez da, noski, hutsetik hasiko den lana, gaur egun Nafarroako erakundeak —Gobernua nahiz Udalak—, 2030 Agendak marrazten duen ildoan doazen hainbat politika eta ekintza egiten ari direlako, ingurumenean, landa garapenean eta eskubide sozialetan esate baterako. Politika horiek, nolahi ere, beste hainbat jarduerekin osatu eta aberastu daitezke eta, halaber, ikuspegi integrala eskainiko duen plan edo programa baten barruan kokatu eta ordenatu daitezke, betiere politika, programa, plan eta jarduera horiek guztiei koherentzia emateko, optimizatzeko eta eraginkorrago bihurtzeko helburuarekin.

2030 Agenda Estatuak sinatu zuten, eta haien egitekoa da konpromisoak gauzatzea; baina Estatuaren mailaren azpiko erakundeek ere badute 17 helburu horien ildoan lan egiteko aukera, eta egokia da hala egitea. Badira urrats hori era planifikatuan egiten ari diren erakundeak, eta horietako bat —Valentziako Generalitatea hain zuzen— Nafarroako Parlamentu Irekira etorri zen bere ibilbidea eta programa azaltzera eta erakustera. Eredu hori eta beste batzuk egon badaude, nahi izanez gero haien esperientzia eta haiek ikasitakoa baliatzeko.

Aurreko paragrafoetan esandako guztia kontuan izanda:

AKORDIO PROPOSAMENA

1.- Nafarroako Parlamentuak honakoa eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: egin dezala azterketa bat argitzeko zein diren, dagozkion eskumenen esparruan, Nafarroako Gobernuak indarrean dituen politikak, programak eta jarduerak, 2030 Agendak dakartzan konpromisoei aurre egiteko. Azter dezala, halaber, zein diren ildo horretan abian jarri beharko lituzkeen politikak, programak eta jarduerak.

2.- Nafarroako Parlamentuak honakoa eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: 2030 Agendak dakartzan konpromisoei aurre egiteko indarrean dauden eta abian jarri beharko liratekeen politiken, programen eta jardueren azterketa egin ondoren, ikuspegi orohartzailea eta zeharkakoa izanen duen ekintza-plana diseinatu eta abian jar dezala.

3.- Nafarroako Parlamentuak honakoa eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: 2030 Agendak dakartzan konpromisoei aurre egiteko gauzatzen diren politika horien guztien segimendu estua eta eraginkorra egin ahal izateko adierazle sistema argi, zehatz eta eraginkor bat prestatu eta abian jar dezala.

4.- Nafarroako Parlamentuak honakoa eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: Nafarroako Gobernuak 2030 Agendak dakartzan konpromisoei aurre egiteko eginen duen lana gizarte eragileekin uztartu eta koordinatu dezala, Agendak berak planteatzen duen moduan.

Iruñea, 2016ko ekainaren 20a

EH BILDU



GEROA BAI



IZQUIERDA-EZKERRA



PODEMOS



NAFARROAKO PARLAMENTUKO MAHAIARI
A LA MESA DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

Los grupos parlamentarios abajo firmantes, al amparo de lo establecido en el Reglamento de la Cámara, presentan para su debate y votación en pleno la siguiente **MOCIÓN**:

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El 27 de septiembre de 2015 la Asamblea General de las Naciones Unidas aprobó la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible, con el fin de erradicar la pobreza, proteger el planeta y asegurar la prosperidad para todas las personas. Se compone de 17 objetivos, 169 metas, así como de una declaración política.

En la resolución aprobada por los Estados Miembros de la ONU se reconoce que “la erradicación de la pobreza en todas sus formas y dimensiones, incluida la pobreza extrema, es el mayor desafío a que se enfrenta el mundo y constituye un requisito indispensable para el desarrollo sostenible”.

Se trata de la principal agenda internacional de desarrollo para el periodo 2016-2030, que toma el relevo a los 8 Objetivos de Desarrollo del Milenio vigentes desde el año 2000. Es además universal, y por lo tanto aplicable a todos los países, incluidos los denominados como “desarrollados”

Los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible pretenden ser un instrumento a nivel mundial para erradicar la pobreza y disminuir las desigualdades y vulnerabilidades, bajo el paradigma del desarrollo humano sostenible. De este modo incluye la variable de la sostenibilidad en el desarrollo humano. La Agenda incluye el ámbito económico, el ámbito social y el medio ambiente, y pretende actuar sobre todos ellos desde un enfoque integral. Esta nueva estrategia debería guiar los programas de desarrollo a nivel mundial durante los siguientes 15 años, y los Estados firmantes deberían disponer los recursos necesarios para la consecución de la estrategia, priorizando especialmente los sectores más pobres y vulnerables.

Según la resolución aprobada por los Estados los objetivos de la Agenda son, entre otros: “poner fin a la pobreza y el hambre en todo el mundo de aquí a 2030; combatir las desigualdades dentro de los países y entre ellos; construir sociedades pacíficas, justas e inclusivas; proteger los derechos humanos y promover la igualdad entre los géneros y el empoderamiento de las mujeres y las niñas; y garantizar una protección duradera del planeta y sus recursos naturales”

Los objetivos recogidos en la Agenda entraron en vigor oficialmente el 1 de enero de 2016. Estos son los 17 objetivos:

1.- Fin de la pobreza; 2.- Hambre cero; 3.- Salud y bienestar; 4.- Educación de calidad; 5.- Igualdad de género; 6.- Agua limpia y de saneamiento; 7.- Energía asequible y no contaminante; 8.- Trabajo decente y crecimiento económico; 9.- Industria, innovación e infraestructura; 10.- Reducción de las desigualdades; 11.- Ciudades y comunidades sostenibles; 12.- Producción y consumo responsable; 13.- Acción por el clima; 14.- Vida submarina; 15.- Vida de ecosistemas terrestres; 16.- Paz, justicia e instituciones sólidas; 17.- Alianzas para lograr los objetivos.

La Agenda ha establecido, por consiguiente, objetivos de gran calado, y en el caso de que se cumplieran el mundo tendría otro aspecto. Es evidente que el reto dista de ser sencillo y que los modelos, visiones, políticas e intereses contrapuestos que están vigentes actualmente dificultarán mucho la obtención de todos esos objetivos. En la propia elaboración del documento se ha manifestado la tensión entre esos intereses y visiones distintas, y en la propia redacción del documento se puede vislumbrar el reflejo de todo ello.

Se puede hacer una lectura crítica de la Agenda 2030. Es más, es necesario hacerla. El documento adolece de contradicciones e incertidumbres y deja unas cuantas preguntas abiertas, que será necesario responder. En el periodo de elaboración del documento, además de las instituciones públicas y la sociedad civil, ha intervenido también el sector privado empresarial, las corporaciones y compañías multinacionales también han incidido, y todo ello ha influido en el resultado final. Por otra parte, tal y como han expuesto distintas entidades sociales, no se le ha dado una solución coherente y clara a la conflictiva relación entre sostenibilidad y crecimiento; el principio de "responsabilidad compartida pero diferenciada" no está convenientemente recogido; han quedado relegadas varias propuestas realizadas por la sociedad civil y algunos gobiernos, como por ejemplo algunas propuestas sobre la gobernanza y sobre la transparencia fiscal.

Pero, por encima de las contradicciones, preguntas sin respuesta y carencias que pudiera tener la Agenda 2030, y teniendo en cuenta que no debe ser un documento cerrado y terminado sino más bien un documento dinámico, merece la pena realizar un esfuerzo para hacer frente a los retos que nos plantea la Agenda, y que ese esfuerzo sea sistemático, ordenado y planificado.

Esa es, precisamente, la propuesta concreta que realizaron los agentes sociales en la jornada de Parlamento Abierto sobre los Objetivos de Desarrollo Sostenible realizada el 7 de junio de 2016 en éste parlamento. En aquella jornada se realizó una reflexión y análisis sobre la Agenda 2030 y los agentes sociales, por medio de la Plataforma de Entidades Sociales, solicitaron a las instituciones públicas de Navarra, literalmente, una planificación estable. Junto a dicha planificación, solicitaron desarrollo de estrategias y políticas con medios suficientes, así como medidas de sensibilización, información y educación, y el reconocimiento del papel de la sociedad civil en dichas políticas y en su seguimiento.

Teniendo en cuenta la solicitud concreta que se le hizo a las instituciones públicas de Navarra en la sesión del Parlamento Abierto, es adecuado responder a dicha solicitud y dar los pasos correspondientes. No es, evidentemente, una labor que deba comenzar desde cero, puesto que las instituciones navarras —Gobierno y Ayuntamientos— están implementando diversas políticas y acciones que van en la línea marcada por la Agenda 2030, en el ámbito del medio ambiente, del desarrollo rural y de los derechos sociales, por ejemplo. Dichas políticas, sin embargo, pueden ser completadas y enriquecidas con otras actuaciones y, además, pueden situarse dentro de un plan o programa que ofrezca una visión integral, siempre con el objetivo de dar coherencia, optimizar y hacer más eficaces dichas políticas, programas, planes y actuaciones.

La Agenda 2030 fue firmada por los Estados, y a ellos corresponde cumplir con los compromisos; pero las instituciones que actúan por debajo del nivel estatal también tienen la oportunidad de trabajar en la línea de esos 17 objetivos, y es adecuado que así se haga. Existen instituciones que están dando esos pasos de forma planificada, y una de ellas, la Generalitat Valenciana, acudió al Parlamento Abierto celebrado en Navarra para explicar y exponer su recorrido y su programa. Existen, por lo tanto,

distintos modelos cuya experiencia y aprendizaje, en caso de considerarse adecuado, podrían ser utilizadas.

Por todo lo señalado, el grupo abajo firmante presenta la siguiente.

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1.- El Parlamento de Navarra insta al Gobierno de Navarra a que realice un estudio para determinar cuáles son, en el ámbito de sus competencias, las políticas, programas y actuaciones que está aplicando de cara a hacer frente a los retos que implica la Agenda 2030. Así mismo, le insta a que estudie cuales son las políticas, programas y actuaciones que debiera implementar.

2.- El Parlamento de Navarra insta al Gobierno de Navarra a que, una vez realizado el estudio sobre las políticas, programas y actuaciones que se están aplicando y las que debieran aplicarse de cara a hacer frente a los retos que implica la Agenda 2030, diseñe e implemente un plan de acción que disponga de una visión integral y transversal.

3.- El Parlamento de Navarra insta al Gobierno de Navarra a que, de cara a hacer un seguimiento exhaustivo y eficaz de las políticas que se apliquen relacionadas con la Agenda 2030, elabore y aplique un sistema de indicadores claro, preciso y eficaz.

4.- El Parlamento de Navarra insta al Gobierno de Navarra a que trabaje por unir y coordinar con los agentes sociales la labor que realiza de cara a hacer frente a los compromisos de la Agenda 2030, tal y como plantea la propia Agenda.

Pamplona, 21 de junio de 2016

EH BILDU



GEROA BAI



IZQUIERDA-EZKERRA



PODEMOS

